



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Hondar aleak**
 Egilea / Autor: **Rafa Ugalde**
 Saila / Colección: Poesia, 39
 ISBN / EAN: 978-84-9109-317-6
 Salneurria / Precio: 8 € (BEZ barne – IVA incluído)
 Orri kopurua / N° páginas: 80
 Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

Egilea / El autor

Rafa Ugalde Irigorri (Zornotza, 1961). Biologian lizenziaduna da, baina euskararen irakaskuntzan eta normalizazioan aritu da lanean. Literaturaren arloan argitaratu dituenak: *Hamaika bizimodu* (2003, Ibaizabal); *Gorria eta beste kontakizun batzuk* (2005, Beta), beste idazle batzuekin; *Gure gerretako heroiak* (2006, Elkar); *Relax* (2007, Txalaparta); *Erreka* (2011, Ibaizabal); *Baltzolako Ipuinak* (2017, Ibaizabal).

Lana / La obra

Blas de Otero - Bilbo Uria Nazioarteko X. Poesia lehiaketa

“Berrogeita hamar urtetik gora hiltzen hasten gozak”. Esaldi hori bota zidan lagun batek hil hurrenean zegoen beste bati bisita egitera joan ginela. Seguruenik, arrazoia zuen; beraz, ni hiltzen hasia dagoen gizonezkoa naiz. Hori horrela, esku artean dituzun *Hondar Aleak* hiltzen hasia den gizonezko baten bizimoduaren bizitza-atalak dira, aleak, sentipen-aleak: norberaren itzalak, gorrotoak, beldurrak eta zalantzak, lotsa ahoz ez aitortuak, maitasun galduak eta desmaitasunak, gurasoekin izan gabeko harremanen mina edo bizitzari zentzua ematen dion heriotza ulertzeko ahalegina. Bizitza baten hondarrak, bihotzetik gogora eta gogotik paperera igaro direnak; ezinegonetik baretasunerantz egindako bidean azaldu diren sentipen-aleak; sekula itzuliko ez direnak. Gerora begira etortzekoak diren aleek eratuko ahal dute betiko atsedean leku izan litekeen hondartza barea!

*Neure soin eta sena aterpe eta abaro bihurtu direlako
 sumatzen dut nire udagoiena
 lakuaren ur-azalean -zintzotasun gordinaren eredu-
 ispilatzen den
 ile zilarreztatuan,
 adimenaren bazterren batean gorde nuen irudi gazteari uko eginez,
 nire borondateari entzungor eginez.*

